GABONETAKO IX. POSTAL LEHIAKETA

1. Helburua
Lehiaketa honen helburua La Fundación-eko familiek fundazioak antolatzen dituen ekimenetan parte-hartzea sustatzea da.

2. Parte-hartzaileak
5 urte eta 11 urte bitartean (biak barne) dituzten La Fundación-eko **titularren seme-alabak** parte hartu dezakete. Seme-alabak La Fundación-aren datu basean onuradun bezala alta emanda egon beharko dira.

3. Aurkeztu behar diren dokumentuak
a) Parte hartzeko **online plataformaren bidez bidali** beharko da. Ezin baldin bada bidali formulario honen bidez gurekin harremanetan jarri eta posta elektronikoz edo posta arruntaren bidez bidali edo bulegoetan utzi.
b) **Marrazkiaren gaia "Gabonak"** izan behar da, eta **La Fundación-arekin lotuta izan beharko du**. Paper edo kartulina zuri batean aurkeztu behar da, DIN A5 (DIN A4 erdia) formatuan eta igo online plataformaren bidez. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake. Beharrezkoa izango da lanak imprimatze arazoak saihesteko tolestuta ez egotea irabazlea gertatzekotan.

4. Aurkezteko lekua eta epea
Marrazkiak aurkezteko moduak (irabazlea izatekotan jatorrizko marrazkia eskatuko da argitaratzeko):
- **Posta elektronikoz:** concursonavidad@lafundacion.com. Kasu honetan, eskaria atxikitu behar da.
- **Posta arrunta erabiliz:** Fundación Laboral San Prudencio. Dato 43 (01005). Vitoria-Gasteiz.
- **Lehiaketaren online plataforma:** online plataforman egongo den formtularioaren bitartez.
- **La Fundación San Prudencioko bulegoetan:** Dato 43 Kalean.

Kasu guztietan, erreferentzia jarri beharko da: '2024ko Gabonetako Postal Lehiaketa'.
Postalak entregatzeko epea **azaroaren 26an** amaituko da, ordua 24etan. Epez kanpo aurkezten diren marrazkiak ez dira kontuan hartuko botuentzako ezta parte hartzeko. Postalen bozketa azaroaren 28an itxiko da.

5. Irabazleen hautaketa
Irabazleak bozkatuenetarien artean aukeratuko ditu La Fundacióneko epaimahaia. La Fundación San Prudencioko erabakia apelaezina izango da. Postal bozkatuena ere sari bat edukiko du.

6. La Fundación San Prudencioko esleitzeko irizpideak
Originaltasuna, sormena, gauzatzea eta aurkezpena sarituko dira.

7. Sariak
2 sariak adinaren arabera
Saria - 5 urtetik 8 urterainoko modalitatea: Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.
Saria - 9 urtetik 11 urterainoko modalitatea: Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.
Saria - Lehiaketaren online plataforman jendeak gehien bozkatutako postalari
200 €-ko opari-bale bat izango da, kiroleko, jostailuetako, elektronikako,
teknologia, etab. Publikoak gehien bozkatzen duen postala ere Fundazioak aukeratzen badu bi adin-tarteetako batean irabazle gisa, bi sariak ezin izango dira metatu, 200 €-ko sari bat baino ez da emango.
Irabazlearen titularrari telefonoz komunikatuko zaio horren berri. Sariak La Fundación-aren egoitzan emango zaizkie haur irabazleei bere gurasoekin. Fundazioan lan egiten duten gurasoen seme-alabek eta epaimahaiko kideen seme-alabek ezingo dute oparirik eskuratu.

8. Hedatzea
Botu gehien duten eta La Fundación aukeratu dituen bi marrazkietatik bat, 2024ko Gabonetako postalaren oinarria izango da. La Fundación-ak marrazki guztien gaineko eskubide eta jabetza beretzat gordetzen du, bere webgunean, aldizkarian edo egokitzat jotzen duen beste edozein komunikazio bidetan hedatu ahal izateko.

9. Oinarrien onarpena
Lehiaketan parte-hartzeak oinarrien onarpen osoa baieztatzen du.